

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko alkate-udalburuak 2019ko otsailaren 8 eguneko 0175 Dekretu ebazpenez onartu duen 2019ko Sostengurako Laguntzen Udal Programaren deialdiaren laburpena

BDNS(Identif.): 440251

Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke.

Lehenengoa. Onuradunak

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria arrazoi ezberdinengatik jaso ezin dituzten eta, jasaten ari diren gizarte-babesgabetasun egoeratik, beraien oinarrizko beharrianak asetzeko diru-laguntzak behar dituzten pertsonak eta familiak.

Bigarrena. Xedea

Ematea diru-laguntzak pertsonen eta familien arloko arazodun egoerei aurre egiteko, beti ere Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Laguntza Osagarria arautzen duen legeriak horien tratamendua ez baitu aurreikusten.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Alkate-udalburuaren 2018ko martxoaren 19 eguneko 0483 Dekretuz onartu diren eta 2018ko martxoaren 23ko 35 zenbakia duen ALHAOn argitaratu diren 2018-2021 aldirako Sostengurako Laguntzen Udal Programaren oinarri arautzaileak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Ekonomia zuzkidura 238.600,00 eurokoa da eta gastua babestu duen aurrekontuko diru saila bada Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko aurrekontuko 0700-2311-480.20.

Bosgarrena. Epea

ALHAOn oinarriak argitaratuta agertzen diren biharamunetik hasita, 2019ko abenduaren 31ra arte.

Laudio, 2019ko otsailaren 8a

Alkate-udalburua
JON IÑAKI URKIXO ORUETA